

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaile **Aintzane Ezenarro Egurbidek**, indarrean den araudiaren babesean, osoko bilkuran, urgentziaz eztabaidatzeko hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du, **Falange y Tradición talde ultraeskuindarrak burutu dituen erasoen inguruan**:

ZIOA

Lau Haizetara Gogoan koordinakundeak salatu duenez, 32 “eraso faxista” izan dira azkenaldian. Falange y Tradición talde ultraeskuindarrak bere gain hartu ditu iazko urritik Euskal Herriko hainbat herritako kaleetan egindako 25 eraso. Tolosan Lasa eta Zabalaren oroitariaren aurka egindako eraso edo Sonia Polo Bilboko txupinerari bidalitako gutun abisua (argazki eta bala banakin), besteak beste. Aditzera eman dutenez gainera, Irunen, Oiartzunen eta Getxon egindako erasoak “Gobernu erregionalera etorri berri den Lopez jaunari ongietorria egiteko” egin dituzte eta Tolosako eraso, berriz, Galindo poliziaburua “omentzeko”. Hori dela eta, hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

1. Eusko Legebiltzarrak gaitzetsi egiten ditu azkenaldian izan diren eraso ultraeskuindarrak, tartean Falange y Tradición talde ultraeskuindarrak bere gain hartu dituenak.
2. Elkertasuna adierazten dio bai Sonia Polori bai eta, oro har, erasoak jasan dituzten biktimei eta haien senitartekoei.

URGENTZIAZKO ESKARIA

Gaiaren larritasuna kontutan hartuta, ezinbestekoa da Legebiltzarrak lehenbailehen eraso hauen kontrako jarrera hartzea.

Gasteiz, 2009ko irailaren 24ean

Aintzane Ezenarro Egurbide

Aralar Legebiltzar-taldeko bozeramailea